

## Alkatearen probidentzia

Hirigintza sailak egin duenaren txostenaren arabera, elektrikari zerbitzu-mailak izan duen hazkundera kontuan izanda beharrezkoa ikusten da Zerbitzu sailaren pean izango den pertsonal baliabideen eta arduren banaketa zehaztuko lukeen hausnarketa sakona egitea. Nolanahi, delako hausnarketa abian jarri bitartean, 2025 urtean proiektuak aurrera eramateko laguntza teknikoa beharrezkoa ikusten da.

Testuinguru honetan sartzeko eta Oñatiko Udalean elektrikari berri baten beharra aurrekarietan jartzeko, alde batetik, egungo elektrikari bakarraren baja luzea aipatu behar dugu, eta bestetik, etorkizunerako sortu diren beharrak azpimarratu behar dira.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

*“1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.*

*2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.*

*3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.*

*4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetatik baliatzeko aukera egongo da.”*

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *“Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, albuespeneko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraziazko beharrezkoak betetzeko.”*

Inguruko udaletan galdetuta, ez dago argiketarien lan-poltsarik edo agortuta daude.

Kontratazio bat egitea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, 6 hilabetez lan pilaketagatik.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, bitarteko lan kontratu bat egitea, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 15.3 artikulua arabera.

*“Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren inguruabartzat hartuko da jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko hazkundera eta gorabeherak, enpresaren ohiko jarduera izan arren, eskuragarri dagoen enplegu egonkorraren eta eskatzen denaren arteko aldi baterako desoreka sortzen dutenak, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.*

*Aurreko paragrafoan aipatzen diren gorabeheren artean sartuko dira urteko oportunitate eratorritakoak. Iraupen mugatuko kontratua ekoizpenaren inguruabar horien ondorio denean, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetez gorakoa izan”.*

Hileko soldata gordina elektrikari lanpostuarena izango da.

3.- Honako profil hau eskatzen da:

- a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina ez izatea.
- b) Europar Batasuneko kide diren edozein Estatuko naziotasuna izatea eta EBn emandako eta Espainiako Estatuak onetsitako nazioarteko Itunen aplikazioa tarteko, langileen zirkulazio librea aplikagarri zaion Estaturen bateko naziotasuna izatea. Europar Batasuneko kide diren

Estatuetako naziodunen bikotekideek ere parte hartu ahal izango dute, legez bananduta ez badaude; era berean, haren ondorengoek eta bikotekidearenek ere, beti ere bi kideak legez bananduta ez badaude, eta hori, bai hogeita bat (21) urtetik beherakoak izanda edo hortik gorakoak eta euren kontura bizi direnak izanda ere.

- c) Eskolaratze ziurtagiria edo baliokidea den titulazioa izatea edota titulu hori lortzeko eskubidea ordainduta edukitzea.
  - d) B gidabaimena izatea.
  - e) Lanpostuko eginkizunetan ohiko jarduna eragotz dezakeen edo haiek bete ahal izateko bateraezina den gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea; hori ziurtatzeko, dagokion medikuntza azterketa egingo zio.
  - f) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, Herri Administrazioei edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokionez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaitasunik edo desgaitasun berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan-kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko.
  - g) Ezgaitasun kasuetan sarturik ez egotea eta abenduaren 26ko 53/1984 eta apirilaren 30eko RD 598/85 legeak bateraezinezkotzat deklaraturiko jardueratan ez aritzea, ez egunean, ezta izendapenaren ondoren praktikan nahiz, kasua balitz jabetzan.
- Esperientzia izatea sektore publikoan, toki-administrazioan bereziki baloragarria den eginkizun baliokideak dituen lanpostuan.
  - Zerikusia duten lanpostuetan sektore pribatuan izandako esperientzia.
  - Berehala lanean hasteko prest egotea. Eskaerak aurkezteko epea: apirilaren 24ra arte.

#### 4.- Hautagaiak hautatzeko, balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

##### 4.1.- Beharrezko prestakuntza

- LHI elektrizitatean edo parekoa
- B gidabaimena

##### 4.2.- Prestakuntza osagarria (65 puntu)

- Postuarekin zerikusia duten ikastaroak (0.1p orduko)
- Euskara: 2HE
- Instalatzaile txartela (60p)

##### 4.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 20 puntu)

0,20 puntuko puntuazioa Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (C1 lanpostuetan), lanbidek igorritako informazioaren arabera. Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,15 puntuko puntuazioa Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (C1 lanpostuetan), lanbidek igorritako informazioaren arabera. Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,05 puntuko puntuazioa sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan, lanbidek igorritako informazioaren arabera eta iraupena eta lanbide-kategoria adierazita.

**\* Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eskatu dezake.**

#### 5. Epaimahai kideak:

Brigadako arduraduna  
Zerbitzuetako arduraduna  
GGBB eta Antolakuntzako AOT

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan  
Alkatea  
Sin.: Iزارo Elorza Arregui Andrea.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Argiketaria Lanbide

**CSV/EKS:**

SINafa2920cb-7b94-4599-95ea-2833eb25269d